

P PREMIO
D DAMA
G DE
L GUION
S LOLA
SALVADOR

DAMAK Lola Salvador Gidoi Onenaren Sariaren V. edizioa antolatu du. Entitatearen sortzaile izandako gidoilari eta idazlearen omenez jarri zaio izena sariari. Lola Salvador, zinemagileen maisutzat hartua, hainbat ekarpenengatik nabarmendu da, hala nola ikus-entzunezkoen sorkuntzari egin dion ekarriagatik, emakumeek lanbide horretan duten presentziaren aitzindaria izateagatik eta sortzaileen eskubideen alde egiteagatik.

DEIALDIAREN HELBURUA

1. Lola Salvador Gidoi Onenaren V. DAMA Sariaren helburua da fikziozko film luzeen jatorrizko gidoi onenak aintzatestea, gidoi zinematografikoen sorrera bultzatzea eta gidoilarien ikusgaitasuna sustatzea.

SARIA

- 2. Lola Salvador Gidoi Onenaren V. DAMA Sariak HOGETA HAMAR MILA euroko** (30.000 €) diru-kopurua du, eta gidoi irabazle bakar bati emango zaio (ezingo izango da ex aequo eman, ez eta esleitu gabe utzi ere). Indarrean dagoen Espainiako legeriak ezarritako zergak ordaindu beharko dira.
- 3. HAMAR MILA euroko** (10.000 €) accesit bat ere izango da, finalistari emango zaiona. Indarrean dagoen Espainiako legeriak ezarritako zergak ordaindu beharko dira.
- 4.** Saria banku-transferentzia bidez ordainduko da onuradunaren titulartasuneko kontu batera, eta ez zaie inolaz ere hirugarrenei ordainduko. Egilekideen kasuan, zenbatekoa zati berdinetan banatuko da.
- 5.** Proiektu irabazlea eta accesita irailean emango dira ezagutzera ekitaldi publikoan bai eta **DAMA**ren webgunean eta sare sozialetan ere. Ez zaie jakinarazpenik egingo hautatu ez diren parte hartzaileei.

PARTE HARTZEKO BETEKIZUNAK

- 6. Lola Salvador Gidoi Onenaren V. DAMA Sarirako** izena eman dezakete deialdi hau aurkeztu aurretik DAMAko bazkide diren gidoilariek. Era berean, DAMAko bazkide ez diren gidoilariek ere eman ahal izango dute izena, nazionalitatea edozein dela ere, Espainian bizi badira.
7. Parte-hartzaile bakoitzak gidoi bakarra aurkeztu ahal izango du. Hainbat egilekide badira, egile bakoitzak bere eskaera egin beharko du, eta gidoi bakarra onartuko da.
8. Hautagaitzak modu anonimoan aurkeztuko dira, hautagai guztien baldintza-berdintasuna bermatzeko; beraz, aurkeztutako dokumentuetan ez da egilearen edo egileen identitatea agertu behar. Egilearen identitatea zuzenean edo zeharka aipatzeak deskalifikazioa ekarriko du.
9. Gidoiak Espainiako edozein hizkuntza ofizialetan aurkeztu ahal izango dira, eta fikziozkofilm luzeetarakoak izan beharko dute.
10. Aurkeztuko diren gidoiak ezin dira izan aurretik eginda dagoen inolako obraren (esate baterako, liburuak, antzezlanak eta abar) egokitzapena, edozein dela ere mota edo generoa, ez egilearenak berarenak izanda ere. Hautagaiak ziurtatu behar du obraren ustiapen-eskubide guztien titular eskusiboa dela, inolako kargarik eta mugarik gabe obraren ustiapen-eskubide guztien gainean.

11. Aurkeztutako gidoiek jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan behar dute, eta honako baldintza hauek bete behar dituzte: ezin izango dira beste lehiaketa batzuetan izena emanda egon hautagaitza hau aurkezten denetik epaia argitaratzen den arte. Era berean, ez dira onartuko ekoitzi diren edo ekoizteko akordioen mende dauden gidoiak, gidoia erosteko aukerak espresuki barne. Era berean, ezin izango dira aurkeztu aldez aurretik beste lehiaketa batzuetan sarituak izan diren gidoiak, garapenerako laguntzak jaso dituztenak edo amaitu diren edo egiten ari diren laborategietan, inkubagailuetan edo sorkuntza-tailerretan parte hartu dutenak.
12. Aurkezten denean, lanak amaituta egon behar du, haren errealizazio zinematografiko egokia egiteko moduan. Inguru zinematografikoan erabili ohi diren ohiko formatu konbentzionaletako batean aurkeztu beharko dira gidoiak. Testuaren aurkezpen-ezaugarriek ongi irakur daitekeela ziurtatu beharko dute.
13. Aurkeztutako gidoiek egileen sorkuntza intelektualaren fruitu izan behar dute, pertsona fisiko gisa. Inolaz ere ezin dira sortu adimen artifizialeko tresnen bidez. Hala izanez gero, hautagaitza baztertu egingo da.

HAUTAGAITZAK BIDALTZEKO PROZESUA

14. Gidoiak **DAMA**ren webgunearen bidez bidaliko dira, **Lola Salvador Gidoi Onenaren DAMA Saria edo LSGDS** atalaren bitartez. Anonimotasuna bermatzeko, bidalketa-prozesuak honako fase hauek izango ditu:

1 Urratsa: Sartu **Lola Salvador Gidoi Onenaren DAMA Saria edo LSGDS** atalean, **DAMA**ren webgunean.

2 Urratsa: Bete izena emateko formularioa zure datu pertsonalekin eta onartu lege-baldintzak. Amaitutakoan, mezu elektronikoa jasoko duzu, pertsona bakarrarentzako kode besterenezin batekin. Kode horrek zure gidoia identifikatzeko balio du, ez partekatu eta ez jakinarazi erakundeko pertsonari.

3 Urratsa: Proiektua entregatzea. Fitxategi bakarra izan behar du pdf formatuan, eta sinopsia, memoria eta gidoia izan behar ditu, ordena horretan. Sinopsitzat hartuko da argumentuaren kontakizun laburtua; memoria, berriz, gidoilariaren asmoak eta ikuspegia azaltzen dituen testua da, gaiaren, premisaren, erreferentzien eta abarren bidez. Berrikusi ondo dokumentua bidali aurretik. Gogoan izan entregatzen duzun pdf-ak ezingo duela egilearen/egileen izena, identifikazio-kodea edo egilea identifika dezakeen erreferentzia pertsonalik izan.

HAUTAGAITZAK BIDALTZEKO PROZESUA

Bete ezazu izenburuaren eremua proiektuaren izenburuarekin, eta kodea eremua, berriz, postaz jaso duzun kodearekin.

Deskargatu erantzukizunpeko adierazpena, bete, sinatu eta igo.

Horrez gain, gaztelaniaz besteko hizkuntza espainiar ofizial batean idatzitako lanen kasuan, egileek gaztelaniarako itzulpena erantsi ahal izango dute, epaimahaiaren balorazio-lana errazteko. Egileek ez badute gaztelaniarako itzulpen hori ekartzen, DAMAk baimena du itzulpena egiteko, epaimahaiarentzat lan-tresna izan dadin, bakar-bakarrik horretarako. Epaimahaiak itzulpenak erabiltzen amaitzen duenean, suntsitu egingo dira.

OHARRA: Mesedez, ez bidali gidoiaren izena edo haren identifikazio-kodea duen komunikaziorik, ez aurkezpenaren aurretik ez ondoren, parte-hartzaileen anonimotasuna mantentzeko eta prozesuaren inpartzialtasuna eta gardentasuna bermatzeko. Kotsultaren bat egin behar baduzu, egin ezazu zein gidoi den zehaztu gabe. Bere datuekin eta gidoiaren kodearekin edo izenburuarekin identifikatzen den parte-hartzaile oro saritik kanpo geratuko da.

15. Goian adierazitako dokumentazioa aurkeztu ezean, proiektuak lehiaketatik kanpo geratuko dira.

HAUTAGAITZAK ONARTZEKO EPEA:

16. Gidoiak 2026ko apirilaren 9tik maiatzaren 8ra bitartean onartuko dira, eta 11:00etan (penintsulako ordua) bukatuko da epea.

EPAIMAHAIAREN OSAERA:

17. **DAMAK** sariaren epaimahaia izendatuko du, bai eta epaimahaiburua ere. Sektore zinematografikoko egile eta profesionalek osatuko dute epaimahaia. Epaimahaiak gutxienez 15 gidoi finalista jasoko ditu, aurretik irakurketa-talde profesional batek aukeratuak. 15 proiektu finalistek genero-parekotasunaren irizpideak beteko dituzte.
18. Epaimahaikoen eztabaidak eta bozketak isilpekoak izango dira. Irabazlearen eta finalistaren izenak soilik argitaratuko dira oinarri hauetan adierazitako hedabideetan.
19. Gidoi irabazlea hautatzean boto-berdinketa gertatuz gero, epaimahaiburuaren botoa kalitatekoa izango da. Botoa ez badio eman berdinduta geratutako hautagai bati, beste boto bat eman beharko du, berdinketa hausteko.
20. Saria irabazi duen gidoiaren eta accesitaren irabazlearen hautaketa apelaezina izango da.

SARITUEN KONPROMISOAK

21. Saritutako egileek hitzematen dute Lola Salvador Gidoi Onenaren DAMA Saria-2026eko edizioa aipua eta **DAMA**ren logotipoa esplizituki agertuko direla etorkizunean film luzea egiteko eskubideak lagatzen badira. Bi elementu horiek ikus-entzunezko obraren euskarri guztietan agertu beharko dute, bai eta obraren publizitate-materialetan ere.
22. Sarituek 7 egun naturaleko epean onartu edo baztertu beharko dute saria. Bestela, epaimahaiak hautatutako beste hautagai bati emango zaio saria.

LEGE BALDINTZAK

23. Deialdi honetako parte-hartzaileak edo parte-hartzaileek lehiaketara aurkezten duten gidoiaren gaineko jabetza intelektualaren eskubide guztien titular bakarrak izan beharko dute. Bestalde, honako hau bermatu behar dute: gidoiak ez duela urratzen inolako ustiapen, ohore nahiz intimitate eskubiderik, ez eta jabetza intelektual nahiz industrialeko eskubiderik edo hirugarrenen inolako eskubiderik ere. Horren harira, parte-hartzaileak lehiaketaren antolatzaileak salbuetsiko ditu legezko erantzukizun guztietatik, eta, ondorioz, bere gain hartuko ditu hirugarren batek gidoia dela-eta aurkeztutako erreklamazio guztiak. Parte-hartzaileak bermatu behar du -eta **DAMAK** erabateko ukigabetasuna du horretan- aurkeztutako obraren egiletza eta originaltasuna benetakoak direla, eta obra ez dela aurkezlearen edo beste pertsona baten lan baten kopia edo aldaketa, ez osoa ez partziala. Horretaz gain, aurkeztutako obra mundu osoan argitaratu gabea dela eta haren titulartasun eksklusiboa dutela ere bermatu behar dute, eta, hirugarrenen aurrean, obra ustiatzeko eskubideei dagokienez kargarik eta mugarik ez dutela.

LEGE BALDINTZAK

24. Lehiaketan parte hartzeak ez du esan nahi obren gaineko eskubideak eskualdatzen direnik, lehiaketa hemen araututako baldintzetan gauzatzeko ezinbesteko diren baimenak albo batera utzita.
25. Erakundeko enplegatu bakar batek ere ezin izango du lehiaketan parte hartu, ez gobernu-organoko kideek edo **DAMA**ren Administrazio Kontseiluko kideek, ez eta aurreko edizioetako irabazleek ere.

KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN BABESA

26. Parte hartzaileek ematen dituzten informazio eta datu pertsonal guztiak konfidentzialak dira, eta ezin izango zaizkie hirugarrenei jakinarazi, ez eta ezarritakoez bestelako helburuetarako erabili ere, indarrean dagoen legerian jasotako salbuespenetan izan ezik.

Edonola izanda ere, datu pertsonalen bilketa eta tratamendua datuen babesaren arloan aplikatzekoa den araudiaren printzipio eta betebeharren arabera egingo dira, bai eta gure pribatutasun-politikan eta datuak biltzeko formularioan aurreikusitakoaren arabera ere.

ANTOLATZAILEEN AHALMENAK

27. Antolatzaileek aldaketak egin ahal izango dituzte, atzeraeraginik gabe, oinarri hauetan, bai eta prozedurari buruzko eranskinak sartu ere, betiere ekitate-irizpideek justifikatzen badituzte aldaketa horiek, parte-hartzaileei kalterik eragiten ez badiete eta lehiaketan zehar behar bezala jakinarazten badira. Antolatzaileek ahalmena izango dute gerta daitezkeen eta oinarri hauetan jasota ez dauden ezustekoei buruz erabakitzeke. Zehazki, antolatzaileek eskubidea izango dute arestian adierazitako data horiek aldatzeko, deialdi hau behar bezala kudeatzeko beharrezkoa izanez gero.
28. Lehiaketaren antolatzaileek beren esku dauden gidoien kopiak suntsitu egingo dituzte edizioa amaitu eta gero.
29. Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar baimena ematea dokumentazio guztia epaimahaikideei eta lehiaketa gauzatzeko lanetan parte hartzen duten laguntzaile administratibo nahiz teknikoei helarazteko.
30. Oinarri hauek edo parte hartzeko baldintzetakoren bat bete ezean, edo emandako daturen bat gezurrezkoa bada, hori egin duenak parte-hartzailea izateari utziko dio, eta, hala badagokio, baita finalista edo irabazlea izateari ere. Kasu horretan, antolatzaileek beste irabazle bat izendatu ahal izango dute, goian adierazitako prozedura berak erabilita.

OINARRIAK ONARTZEA

31. Deialdi honetan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek guztiz onartzea, bai eta antolatzaileen eta epaimahaiaren erabakiak ere. Oinarri azken interpretazioa antolatzaileei dagokie.

L
S

>A.A.A.A